

*Oso gogor gaitzetsi izan ditu beti Eliza Katolikoak harreman homosexualak, baina 1992aren bondarrean Katezismo Berriaren argitaratzeak eta homosexualitateari buruz han esaten zenak, gay eta lesbiana kolektiboen haserrea areagotu egin zuen. Apostasia kanpainari ekin zioten orduan, Eliza Katolikotik «ezabatze».*

## Elizarekin maitasun harremanik ez

**E**liza Katolikoak sexuarekiko duen jarrera estua are eta gogorragoa da homosexualen kasuan. Betidanik gaitzetsi izan ditu Elizak praktika homosexualak, besteak beste, «lege naturalaren kontratatzat eta deprabazio larritzat» joz. Gizartean, ordea, gero eta onartuagoa da homosexualitatea, eta ondorioz, azkenaldion polemika biziak sortu izan dira gay eta lesbianen mugimendu, gizarteko hainbat sektore eta Elizako estamentuen artean.

1992 amaieran Katezismo Berria argitaratu zenean, su gehiago hartu zuen eztabaidak. «Intrinsekoki ordenaz kanpokoak» dira praktika homosexualak Elizaren iritziz, eta «inolako kasutan ere ezin dira onartu». Halaberean, homosexualak egon badaudela aitortzen da Katezismo Berrian, «persona batzuk berez baitute joera hori». Baina horren aurrean eskaintzen dien irtenbide bakarra, kastitatean bizitzea da.

### APOSTASIAREN BIDEA URRATZEN

Haserre handia sortu zuen Katezismo Berrian jasotakoak gay eta lesbianen artean, eta kolektibo batzuek apostasia kanpaina hasi zuten Katezismo Berria kaleratu eta gutxira. Izan ere, bataioa jasotzen duten pertsona guztiak dira Eliza Katolikoaren kide, eta homosexual eta lesbiana taldeek uko egin nahi zioten horri. Apostasiaren bidez, Elizako kide izateari muzin egiten zaio, baita edozein sakramentu jasotzeari ere.

Euskal Herrian EHGAMek bideratu du apostasia kanpaina, nahiz eta lesbiana talde desber-



Gipuzkoako apostasiaren aurkezpena.

ANDER GILLENEA

Nafarroan 200 lagun inguruk egin dute apostasia EHGAM-en bidez, eta Gipuzkoan, berriz, 300en batek.

dinak eta beste hainbat gizarte mugimendu ere bultzatzaile izan diren.

Apostasia kanpaina hasi zutenean EHGAMeko kideek azaldu zuten, Eliza Katolikoak «eraso» egiten die homosexual guztiari. «Praktika homosexualak dituen pertsonak diskriminatu egiten ditu Elizak, baita ugalketarako izaten ez diren harreman guztiak ere, eta aldi berean zenbait kasutan herio zigorra ontzat ematen du», adierazi zuten.

Kanpainak eman ditu bere fruituak. Nafarroan, adibidez, 200 lagun ingururen apostasia

bideratu du EHGAMek orain artekoan; Gipuzkoan, berriz, 300en batena. Datu horiei, inolako bitartekaritarik gabe apostasia euren kabuz egin dutenak erantsi behar zaizkie.

### ESKUBIDE ZIBILEN KONTRA

Azkeneko polemika, berriz, Espainiako Gizarte Gaietarako Ministerioak egiteko bikoteen egoera arautzeko iragarri duen lege proiektuaren inguruan sortu da. Lege berriaren arabera, ezkondu gabeko bikoteek —berdin heterosexual zein homosexualak— ezkonduakoen eskubide berak izango dituzte. Espainiako Gotzainen Batzarrak gogor egin du horren kontra. Elias Yanes lehendakariarekin arabera, «familia galbidean» jartzen da neurri horrekin, eta oso ondorio txarrak izango ditu. Gotzainen Batzarraren arabera, inola ere ez da onargarria bikote heterosexual eta homosexualak pareko eskubideak izatea.

### PUNUZ PUNU

## Deprabazio larria


Eliza katolikoak betidanik izan du oso jarrera gogorra homosexualitatearekiko. Katezismo Berriak indar handiz azalazarazi zuen jarrera hori. Hona hemen pasarte batzuk:

- «Homosexualitatea deprabazio larritzat jotzen duen Liburu Santuan oinarrituz, 'ekin-tza homosexualak intrinsekoki ordenaz kanpokoak' direla adierazi du beti Tradizioak. Naturaren legearen kontrakoak dira. Ekintza sexuala bizitzaren dohainetik kanpo uzten du. Inolako kasutan ezin du onespenez jaso».
- «Gizon eta emakume askok senetzko joera homosexualak dituzte. Ez dute euren izaera homosexuala aukeratzeko proba izaten da gehientzat. Begirunez, errukiz eta sentiberatasunez hartu behar dira. Haienganako edozein diskriminazio saihestu egin behar da. Jainkoaren borondatea betetzeko sortu dira, eta kristauak badira, Jesukristoren gurutzeko sakrifizioari euren izaeragatik aurkitzen dituzten zailtasunak batu behar dizkiote».
- «Kastitatera deituta daude pertsona homosexualak. Bertutearen eta norberaren dominioaren bidez euren barne askatasuna hezi dezatela, eta batzuetan otoitzaren laguntzaren bidez eta sakramentuen graziaren bidez, perfektio kristaura hurbildu ahalko dira eta beharko dute».

### GALDERAK

1.— Eliza katolikoaren katezismo berriak, homosexualitatea aberratizotzat jotzeaz gain, kastitatea beste irtenbiderik ez du ematen. Zer derizkiozu horri?

2.— Espainiako Gizarte Gaietarako Ministerioak bikote homosexualen eskubideak heterosexualekin parekatzeko lege proiektua aurkeztu du. Ados al zaude?



Jesus Teran

Jesuita, teologoa eta moral katedratikoa Deustuko Unibertsitatean

1.— Arlo honi dagokionez katezismoa oso zorrotza da, ez baitu bikote egonkorra onartzen. Kastitatea ideal antzeko bat da. Homosexualentzat bikote egonkorren bila jo behar da, promiskuitatea baino askoz ere egokiagoa baita. Bikote egonkorrak harreman genitalak ere izan ditzake, arriskua bada, baina nolana ere promiskuitatea baino askoz ere duinagoa. Sublimazioa da beste irtenbidea, sexua literatura- ren bidez, erlijioaz, zientzi- az edo arteaz ordezkatzeko.

2.— Niri arraro samar egiten zait. Anatomia, fisiologia eta psikologiari buruz ditugun datu normalenen arabera, argi agertzen da gizonezkoak eta emakumezkoak osagarriak direla. Sexu berekoen bateratzea arraro samarra da. Ikerketak egin behar dira zer arrazoi anatomiko, fisiologiko eta psikologikotatik gertatzen den hori jakiteko, ez baitut uste homosexualitatea sexuaren aldaki hutsa denik. Finean, ez nago ados bikote homosexualen eskubideak heterosexualenekin parekatzearekin. Lagundu egin behar zaie beren bizia ahalik eta gehien aberas dezaten. Baina noraino? Ezin dizut esan.

 **MALKOA**  
TEJERIA KALEA IRUÑEA

 **ALAKARGA**  
M<sup>o</sup> de Azuelo plaza, 1  
Tfnoa: 26 60 05 31011 IRUÑEA

**ANDREA** 

○ Diskriminaziorik ez.  
○ Berdintasuna eta Askatasun sexuala gizaki ororentzat.

Koordinadora feminista:  
heterosexualitatearen arauak hautsi itzazu.

**E H G A M**

25 urte apurtzen

**BIZKAIA**  
1667 P. K.  
48080 BILBO  
☎ 94 - 415 07 19  
(arratsaldero 8etatik 10etara)

**GIPUZKOA**  
1632 P. K.  
20080 DONOSTIA  
(asteartero 8etatik 10etara)

**NAFARROA**  
1157 P. K. 31080 IRUÑEA ☎ 948 - 21 00 63  
(asteartero 8etatik 10etara)

**CRYSTAL** 

SALA  
KAFAA  
DISKOTEKA

Ostegun eta igandetan ikuskizunak

VENEZUELA ENP. 1  
BILBO